

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Alkatearen eginkizunak eskuordetzea

Alkatearen azaroaren 17ko 338/2023 Dekretuaren bidez, hitzez hitz jasotzen den xedapen zati hau duen ebazpena onetsi zen:

Lehenengoa. Javier Ruiz de Arcaute Ortiz de Urtaran zinegotziaren esku uztea A. M. O. eta N. P. D. M. G. D. ezkongaien arteko ezkontza zibila Arratzua-Ubarrundiako Udalean egitea, 2023ko abenduaren 29an, 10:30ean, euskaraz.

Bigarrena. Dekretu hau jakinaraztea zinegotzi ordezkariari.

Hirugarrena. Dekretu honen bidez gauzatzen den eskuordetzeak organo eskuordearen onepena behar du eraginkorra izateko, eta isilbidez onetsi dela ulertuko da, baldin eta alkateari ez bazaio eskuordetzearen kontrako adierazpenik idatziz aurkezten ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasi eta hiru egun balioduneko epean.

Laugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da, eta horren berri emango zaio udalbatzari egiten duen lehenengo bilkuran.

Bosgarrena. Ebazpen honetan berriaz aurreikusi ez den guztian, zuzenean aplikatuko dira arau hauetan eskuordetzeko araei buruz xedatutakoak: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea eta Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Arautegia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua.

Dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da, bat etorritoki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Arautegia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak 44.2 artikuluan xedatutakoarekin.

Dura, 2023ko azaroaren 17a

Alkatea

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE